Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pedro Sarasua

Mallabia, Bizkaia



Aurkibidea

Biografia



Guenetxe baserria; Gerea auzoa

Zintak

MAL-024

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-09-12
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

MAL-025

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-09-12
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

MAL-033

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-05-22
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Mallabiko Gerea auzokoa

- **Erref**: MAL-024/001
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
1933ko ekainaren 29an jaiotakoa; Goenengoa baserrian.

2. Baserriak errentan; etxejabea

- **Erref**: MAL-024/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Jatorria. Aita eta ama non jaiotakoak. Baserri izenak. Baserritar gehienak errenteroak ziren. Adán de Yarza, jauntxo handia.

3. Etxejabeari ordaindu behar izaten zitzaion errenta nolakoa zen

- **Erref**: MAL-024/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Errentan zeuden baserritarrak, nagusiari garia eraman behar izaten zioten eta gainera dirua ere ordaindu behar izaten zitzaion. Gabonetan, kapoiak eta garo burdikara bat ere. Gerraostean, herrian ere garia entregatu behar izaten zen. Abadeari garia eramaten zitzaion baita ere.

Transkripzioa
- Eta errentan bizi zianak, ez dakit, loturaren bat zeken jabiakin?
- Errentan bizi zienak? Guk, behintzat, garixe eruten gendun; setencientos ez dakit zenbat kilo urteten eban zortzi anegak, ta beste zortzi pagau itten genduzen ondiok. Ta beste hogeta lau euro, ha errenta moduen zan.
- Hogeta lau euro ez. [...]
- Bai, "ciento veinte pesetas". Ta gero, kontribuziñuek be geuk pagau biher. Oin kontribuziñoik... Bai, oin be badaz, etxiana, baiña basuanik-eta ez dao oin ta...
- Alkiler bat.
- Alkilerrien pagau in bihar noberak!
- Eta esan dozu garixa emoten zetsazuela?
- Garixe be bai. Ta gero etxerako palta. Hara ta herrire ta abadiai be bai beste apur bat eta...
- Oseake garixa jende askondako, ez?
- Ta baztarra guztixek gari-eraitten. Garixe edo artue izeten zan lehen. Gero, ba, landa in zienien, bedarra ebaten gero, geratu barik. Ta gero siketzen-ta aspertu zanien, siluek.-eta in genduzen. Ein genduzen...guk baiño aurretik beste batzuk be bai, ta guk be laster txamar. Ta oin harek be hutsik daz...
- Esan dozu jabiari garixa emoten zetsazuela, zortzi bat anega edo, eta hori noiz izaten zan? Urtian ze sasoittan?
- Ba, hartzen zan ingurun erun biher. Garixe jo...saso´ hontan entregau, ze garixek trillatzen zien, ba, San Inaziotarako edo hortara.
- Julio-agosto.
- Bai. Agostun be iños bai, denporaldi txarragaittik atrasaute ta... Urte baten, nik ez neuken urte asko, baiña euri itzelak eindde gehixenak usteldu be ein zittun. Bai. Ta holantxik, ahal zan modun.
- Eta gero Gabonetan zeoze emoten jakon?
- E?
- Gabonetan zeoze emoten jakon etxe-jabiari?
- Guk ez, baiña batzuk baeuken kapoiek-eta eruten eutsezenak. Guk ez. Guk Gabonak orduko... gero hori... A! Ta burkada bat ide be bai eruten geuntsen.
- Garue...
- Bai. Ba, orduntxe eitten zien kontuk, Domu Santu bueltan edo azkenoi.
- Orduan, etxe-jabia...
- Bai, [...] errentie pagatzeko egon bihar!

4. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref**: MAL-024/004
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Baserriko bizimodua umetan. Itaurren; iturritik ura ekarri; astoak larrera eraman; e.a. Eskola gertuan zuten.

5. Behiak nola hazten ziren

- **Erref**: MAL-024/005
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behiak kortan egoten ziren gehienetan; orain bezala landetan ez.

6. Auzoko eskola; auzoko baserrien izenak

- **Erref**: MAL-024/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Eskolan 7 urtetik 14ra bitartean egon zen. Eskola noiz egindakoa den. Auzoko eskola zen baina inguruko auzoetatik ere umeak etortzen ziren; Trabakutik behera dauden baserrietakoak ordaindu egin behar izaten zuten. Urtean, pertsona bat arduratzen zen eskolako egoeraz ("maiordomue"); hari ordaintzeko izango zen dirua. Eskola, karearekin zuritzen zuten, "letxerie". Baserri izenak.

Transkripzioa
- Eta eskolan zenbat urtekin-edo hasi ziñan? Goguan dakazu?
- Eskolan saso´ antzien ni, zazpi bataz bai.
- Zazpi bat urte...?
- Ta hamalaura ingurura arte ibili nintzen.
- Bai, honek eskolie ondo ikesi eben.
- Ta... Ba, zortzikin edo primera komuniñue ein [nauen] ta.
- Lehelengo jaunartzie.
- Eskolia zeuek baiño lehenao eindakua zan?
- Bai.
- Askoz lehenao? Edo?
- Asko be ez aurretik. Horrek eskoliorrek oin eukiko dittu hirurogeta hamazortzi larogei urte edo.
- Oseake, zeuek estrenau ez, baiña, bueno...
- Gure aitte-ta ezkondu zin inguruen, hirurogeta hemeretzi bat edo holako bat.
- Eta auzokuak juaten ziñazien bertara?
- E?
- Auzokuak bakarrik juaten ziñazien bertara?
- Ez, etorten zin... Ta zera, pagau itten eben hor Trabakotik beherakuek, hamen eskolara etortzearren.
-A, bai, e?
- Ez dakit, ba, zetako izengo zan. Gero, urtin bat maiordomue edo egoten zan eskolie, bakaziño-denporan, eskolie zurittu-edo eitteko. Ta hartarakoxe izengo zan ha diru´ segurua´. Ba, letxerie edo pintturie edo dana dalako...

Letxerie izengo zan lehen, kariaz eindde.
- Ordun kariaz izaten zan letxerie, ipini zurittute, urtute, ta gero brotxiakin haxe.
- Oseake, horri letxeria esaten detsazue?
- Hori kariakin eitten dana bai, letxerie. Hori beti entzun da.
- Oin, ba, pintturak daz, baiña lehena´ kariaz etxin be baztarrak zuritzen zin.
- Zurixe izeten zan ta garbixe bazan, e? Oin, bueno, pintturie ezeixu konparau.
- Bueno, amaraun batzuk kendu ta... Eskobiaz izeten zan enjeneral. Pristi-prastie [...].
- Brotxie [...].
- E?
- Brotxa bat be egoten zan [honan]. Bueno...
- Bai, geruao.
- Ha makillan ipinitte.
- Baldan eindde eskobie sartu ta harekin. Masma [batzuekin goixe...] eindde.
- Eta maiordomua zein izaten zan?
- Bueno, lantzin bat. Eskolan partidue euken guztixek. Aurtengo urtin ni banaz, hurrengo urtin beste etxe batekue.
- Eta hori sorteoren bat eitten zan edo...?
- Sorteun barik saillien jungo zan ha zeretik, numerotik edo. Ez dakit nik zelan izeten zan be.
- Orduan, kanpotik be etortzen zian hona?
- Bai.
- Trabakutik behera daren basarrixetatik eta...?
- Bai, bai. Hor, Lapatza ta Orrospengue be... han... Trabaku baiño harutza´ kamiñupien ta... Baitte Elgetzukuk be etortzen zin ta Abendibarkuk eta... Gero hor txaletak eindde daz oin Donagaraittik han gorutz. Han etxe bat zan, Donetxebarri, hangue, ta Donazkuk be bai ta...
- Orduan, ume asko juntauko ziñazien hemen, ez?
- Hirurogeta hiru kontaute na´ ni hor batera.

7. Auzoko eskola; irakasleak

- **Erref**: MAL-024/007
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ume asko batzen ziren eskolan. Guztiak ez ziren sartzen eta nagusienak beste gelatxo baten egoten ziren. Maistra, Margarita González; Durangoko Rementería. Neska-mutilak elkarrekin.

8. Eskolako kontuak

- **Erref**: MAL-024/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:12:05. **Bukatu**: 00:15:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Neska-mutilak elkarrekin. Eskola-liburuak. Tinteruak. Morralean liburuak, koadernoa eta pizarrina eramaten zuten. Eskulanak.

9. Eskolan zer ikasten zuten; irakaslearen inguruko aipamenak

- **Erref**: MAL-024/009
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan zer ikasten zuten: Matematika; Geografia; Historia de España; e.a. Klaseak erdaraz ematen zituzten. Zapatu goizetan ere klaseak izaten zituzten. Tolosako maistra, Trabaku goikoan egoten zen apupilo. Bortzeria handi batzuekin ibiltzen zen. Bidea noiz egin zen.

10. Oinetakoak: bortzeriak

- **Erref**: MAL-024/010
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Oinetakoak. Bortzeriak nolakoak izaten ziren. Ultzeak zituzten azpikaldean.

11. Maistra, Trabakugoikoan apupilo.

- **Erref**: MAL-024/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Maistra, Trabakugoikoan egoten zen. Eskolan, sukaldea ere bazegoen. Baserriko sukaldean beheko sua; laratza zuten. Eskolan, txapa zegoen. Eskolako eraikina, egun elkarte moduan erabiltzen da.

12. Eskolako lanak egiteko argirik ez baserrian

- **Erref**: MAL-024/012
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Sasieskola; eskolara joan gabe geratzen ziren batzuetan. Zigorrak. Etxerako lanak bidaltzen zituen maistrak, baina baserrietan argirik ez zen egoten. Karburoa edo kandelak erabiltzen zituzten.

13. Inspektorea eskolara joaten zeneko kontuak

- **Erref**: MAL-024/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:22:45. **Bukatu**: 00:24:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Inspektorea behin edo behin agertu zitzaien. Maistraren ardura.

14. Baserriaren egitura; lexikoa

- **Erref**: MAL-024/014
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:28:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Baserria nolakoa zen. Eskaratza; sukaldea nolakoa zen. "Txahaltokixe"; "askaurrie"; "karrejue". Beheko sua nolakoa izaten zen.

15. Argindarra auzoan; aurretik, karburoa eta kandela

- **Erref**: MAL-024/015
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Argia noiztik dute baserrian. Auzoko baserri batzuren artean ipinitako saltoa. Aurretik, karburoa eta kandela erabiltzen zuten. 20 urtetan zehar beraiek izan zuten auzoko baserriei argia emateko ardura.

16. Berrikuntzak baserrian: argindarra

- **Erref**: MAL-024/016
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:33:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Argia etxetik ematen zuten bolante batekin. Nagusiek argia ikustean zer esan zuten.

17. 8 urterekin Bilbora amonarekin

- **Erref**: MAL-024/017
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:33:30. **Bukatu**: 00:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
8 urterekin Bilbora joan zen amonarekin. Autobusez joan ziren bertara. "Zer dok hau!!". Orduan ez ziren etxetik, Mallabitik kanpora irteten. Gaztetan soldadutza egitera Zaragozara joan zen; Salamancan ere egon izan da.

18. Ur-korrontea baserrian; garbitasuna

- **Erref**: MAL-024/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:38:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Etxean ur-korrontea duela 41 urte sartu zuten. Etxearen kanpokaldean zegoen askan berriz, betidanik ezagutu izan du. Lan-banaketa baserrian. Galdara non garbitzen zuten. "Arraukie".

19. Elikadura baserrian

- **Erref**: MAL-024/019

- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:38:00. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Elikadura baserrietan. Taloa eta esnea; morokila; artoa eta esnea. Babarruna. Gaztainak; sagar erreak. Baba zuria, noizen behin; garbantzuak, jai egunetan. Letxuga azukrearekin.

20. Kalera saltzera zenbatero jaisten ziren

- **Erref**: MAL-024/020
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:45:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Kalera zer jaisten zuten; tratura nora joaten ziren. Bi egunetik behin joaten ziren. Esnea, sagarrak, untxiak eramaten zituzten. Oilotokia basoan izaten zuten. Oiloa lokatu.

Transkripzioa
- Eta kalera-ta ze jeisten zenduen? Esnia ta...
- Ba, esnia ta... Ez. Sagarrak iños bai. Ni kalera Ermure junde na´ hamabi urte, hamahiru, hamalau ingurura arte be bai. Urte bi ingurun. Egun bittik bat juten giñen. Esne apurre erun, ta han Itturrin bodegie esaten eutsen, ta ardaue ekarri gorutz. Ta bai, sagarrak be bai. Gero konejuk ipintten be hasi giñen, ta eskatu eitten zittuen bezeruek eta, ia konejorik eta... Etxien hilddekue gure izeten eben ha be. Bueno, hori nik itxi ta gerua´, arreba gaztiaue juten zan ta neuk hiltten nittun ta...
- Ta arrautzak eta...?
- Arrautzak bai. Ein zenbat eitten zittuen, ba? Etxe ondotik han handikaldien euen gurin basuen oillo-txabolie. Ta [zukue] emoten jakuen. Ta oillarra be eurekin eukitten eben, ta iños oillolokie txitak ondorik zittula sasixen etara txitak eta... Oillo beste [azeri] be ez dakit euen...
- Eta oilluak, orduan, basuan egoten zian?
- Basuan txabolie. Eurek sartu ta urten eitten eben. Baiña gero aspertu giñen, miruek eta basakatuek-eta hasi zien ta gero ekarri. Ta oin, ba, barruen eukitten dittuu.
- Orduan, esan dozu, arrautzak gitxi, ez?
- Oin aspertute arrautzie jaten ta lehen...
- Arrautzak... Harek oilluk igul lau-bost urtekuk be egongo zin ta hiru egunetik baten itten baeben igul... euezenok hartu ta etxera. Oin, ba, oilluk urte bittik-edo kanbixatzen ibiltten ga´.
- Oin arrautzie, normalin, honenbeste oillo, horretxen beste arrautza itten dabe ixeixa. Bai. Baiña...
- Ixeixe barik! Sasoien...
- Baiña emoten jakue euren pentsue, emoten jakue euren gauza danak, baiña... Ordun emon be ez, ta gero eurek be ez. Hori pasatzen da. Oin baserri danetan da oilluek... Bueno! Holantxik.

- Eta zeuek arrautzia jan eta? Basarrixetan umetan goguan dakazue...?
- Arrautzie jan... Bai. Honan, zartankada patata-erriei bat edo ganien botata...
- Gutxi...
- Oin larrei lez jaten dou, baiña ordun...

21. Elikadura baserrian jai egunetan

- **Erref**: MAL-024/021
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:47:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Elikadura baserrian, jai egun eta Gabonetan. Gisatua; bakailaoa; olio asa; konpota; turroia... Intxaur-saltsa.

22. Gabonak baserrian; Santa Ageda

- **Erref**: MAL-024/022
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:50:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:
Gabonetan opariak izaten zituzten; Errege eguna. Gabon kantak; umeak eskean. Santa Ageda.

23. Dotrinaren garrantzia XX. mende hasierako gizartean

- **Erref**: MAL-024/023
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:50:05. **Bukatu**: 00:53:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Dotrina eskolan ematen zuten. Abadeak ematen zien. Domeka arratsaldetan arrosarioa. Dotrina eskolan erdaraz ematen zuten; abadearekin euskaraz. Jaunartzea egiteko derrigorrezkoa izaten zen dotrina ongi jakitea. Mariak sari bat irabazi zuen dotrina ongi jakiteagatik.

Transkripzioa
- Lehen esan dozu dotriñia ta. Eskolan emoten zenduen?
- Eskolara etrotzen zan abadie, baiña... Eskolara astin hiru bider etortzen zan. Ta ihesi eindde... Maistriek berak be iños ainddu oskun, “Erlojue euki dot gaur txarto” ta baten... Gu aguro.

- Orduan, astian hiru bidar ta…
- Ta gero domeka… errosarixua orduko domeka atsaldin. Ta gero hara jun ez, ihesi handik, eta hurrengo zortzi egun kastigaute.
- Sin recreo.
- Ta aittek eta amak be hara jun ezik, barritz, e…
- Eta dotriñia ze emoten zenduen, euskeraz edo erderaz edo…?
- Dotriñie?
- Euskeraz.
- Bueno, euskeraz, baiña guk…
- Eskolan erderaz.
- Ba, hoixe,ze nik bixetara be badakixaaz ta. Bai, eskolan, eskolan erderaz hori.
- Bai “Eres un cristiano” hori esaten zan ta bestian “Kristiñaua zara”. Batien euskeraz ta bestien erderaz.
- Eta euskerazkua zelakua zan? Gogoratzen dozu zatiren bat?
- E? Gogoratzen dozu zatiren bat euskerazkua zelakua zan dotriñia?
- Euskerazko dotriñie zelaku´ zan aber akordetan zarin!
- Euskarazko dotriñie, ba, gu ze gogoratuko ga´ ba? Agur Marixe ta Santa Marixe, Aitte Gurie…
- Dana. Salbie ta beste gauza asko.
- Euskeria ze izaten zan…
- Aginduek eta danak.
- … Bizkaiko euskeran ala halako euskera…?
- Guk Bizkakue. Bizkaikue, bai.
- Orduan errezaua ikasteko, ez?
- Bai, geure erakuk
- Bueno, bestie be dotriñie… Ha ondo ikesi biher izeten zan ta.
- Dotriñia, hori da, inportantia zan, ez?
- Hoixe!
- Kasik eskolia baiño gehixao edo…?
- Ez, eskoliek palta gehixao ingo eban ordun be. Oin, barritz, halan be gehixao, baiña… E! Dotriñie ondo ez ekixenak eta primera komuniñoik ta ezin zeixen ein lehen, e!
- Honako liburutxo bat egoten zan. Zenbat orri eukiko zittun harek?
-A! Ez dakit.
- Hamar iguel? Baiña ha dana ikesi biher izeten zan. Nik ha lehen dana ikesi [naban]; oin ez dakit jakingo neuken erdixek.
- Bai! Oin lehendik diferentetuta daz egon be, ta…
- Kartillatxo bat izeten zan ta, bueno, ha dana. Ta, bueno! Ni akordetan naz baten premixue emon osten dana jakin nebalako. Oin ez dakit erdixe be, e?
- Ez zan… ez zan izengo premixo haundixe…
- Erregalutxue, elizako erregalutxue izen zan. Ta jo! gure amak pozik ikusi eben ha.
- Eta dotriñia, esan dozu, ondo ez zekixanak jaunartzia-edo ez zebala eitten? Orduan abadia ze izaten zan, gogorra?
- Bai, hoixe, ondo jakin biher jaunartzia itteko. Igul gure sasoku baiño zaharrauek be geukin batera-ta itten eben aurreko urtin atrasau zielako ta.

24. Jaunartzearen inguruko kontuak

- **Erref**: MAL-024/024
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Jaunartze bakarra. Traje berezia egin zioten egun horretarako; gosaltzeko arroz-esnea. Neskak nola joaten ziren jantzita.

25. Jaunartzea egin ondoren, monagilo

- **Erref**: MAL-024/025
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Jaunartzea egin eta gero hasi zen monagilo bezala. Abadeak berak aukeratzen zituen mutilak. Latinez esan behar izaten zituzten gauza asko. Meza nagusiaren aurretik, prozesioa elizaren bueltan.

26. Erlijioaren garrantzia; elizako ohiturak

- **Erref**: MAL-024/026
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 01:00:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Lehenago mezara jende asko joaten zen. Joaten ez zena, gaizki ikusita. Monagiloaren arropa, gorria izaten zen. Hileta-elizkizunetan, beltzez janzten ziren. Kanpai batzuk sakristauak jotzen zituen.

27. Erlijioaren inguruko ohitura zaharrak

- **Erref**: MAL-024/027
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:00:25. **Bukatu**: 01:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Baserri batean gaixo bat zegoenean, elizakoak eramaten ziren. Farolarekin eskuan, monagiloa abadearen aurretik. Bidean norbait suertatzen bazen, belauniko jarri behar zen. Ohitura zaharrak.

Transkripzioa
- Gaixorik zeuanian basarriko... ez dakit, basarrittarren bat edo...
- A! Bai, elixakuak erut´a?
- ... elixakuak eruatera?
- Bai, junde na´ ni baten baiño gehixaotan abadiakin.
- Eta ze izaten zan? Zu juaten ziñan aurretik edo zelan...?
- Bai, farola eskun zala, ni aurretik, abadian aurretik. Farola ixotute, e! Kandeliakin.
- Ta gu eskolara juten giñenin, bidin...
- A! Ta ha bidien-edo suertaten bazan, belaunbiko parau biher izeten zan, gure jaune doielako.
- Txiliña edo eukitzen zenduen?
- Baitte, txiliñe joten juten zan ta, bidien be, ta ezaun izeten zan elixakuek oiezena. Lehen elixan be txiliña jotzen zan, bai; [...] be bai ta konsagraziñuen ta. Oin bape ez da joten ta... Harek joten zien bai lehen.
- Eta, orduan, elixakuak emotera juaten ziñanian abadiakin...
- Ordun bidin, lantzin-lantzin, "txin, klin". Ta handik gerotxua´ atzera ta, ba... Zer doien aitzen emotearren izeten zan.
- Eta gero zelan izaten zan? Basarrira heldu eta hiltzen zeuanan edo gaixorik zeuanan inguruan kandelak ixotzen zian edo zelan izaten zan?
- Kandelak ixotute egoten zien baserrikuek.
- A! Orduan ya ixotuta egoten zian zuek...
- Bai. Ta gero emon, ba, zeroi, ta itten otsezan beran biharrok eta... Zozer goix partie bazan, iños armozue emoten otsen abadiai ta...
- Monagilluai bapez?
- Bai, neuri be bai.

28. Asentzioko letaniak

- **Erref**: MAL-025/002
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Asentzioko letaniak hiru egunetan egiten ziren.

29. Erramu eguneko eta Santa Kurutz eguneko bedeinkazioak

- **Erref**: MAL-025/004
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren eta Santa Kurutz egunean soroan ipintzen zituzten.

30. San Juanetako ohitura zaharrak

- **Erref**: MAL-025/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juanak. "San Juan sorbia". Ohitura zaharrak.

31. Domu Santua; Arimen Eguna: ohitura zaharrak

- **Erref**: MAL-025/007
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Arimen Eguna; Domu Santu Eguna. Mezak. Hilarriak. Mantila beltza. Ohitura zaharrak. Sakristauaren eginbeharrak. "Olatie". Kanpai klase desberdinak. Garai batean oso jende gutxik izaten zuen erlojua. Kanpaien garrantzia.

32. Hil-kanpaia

- **Erref**: MAL-025/008
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Hil-kanpaia, desberdin jotzen da hildakoa gizonezkoa edo emakumea bada.

33. Hileta-elizkizunak

- **Erref**: MAL-025/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Elizkizunak. Hileta-elizkizunak: primerakoak... Abadeak jasotzen zuena (garia; dirua...).

34. Sakristauaren eginbeharrak

- **Erref**: MAL-025/011
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:12:15. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Sakristauaren lana zein izaten den. Egungo egoera. Batzuetan berak egin behar izaten du "ospakizuna".

35. Elizaren inguruko ohiturak eta debekuak

- **Erref**: MAL-025/013
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Gure Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten ziren.

36. Konfesatzera joatearen inguruko aipamenak

- **Erref**: MAL-025/014
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Konfesatzera joatea. Abadeak belarrietatik tira egiten zien mutilei.

37. Mallabia aldean ezagutu dituen abadeak

- **Erref**: MAL-025/015
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Ezagutu dituen abadeak. Don Pedro Buruaga; don Silvestre; don Víctor Ajuria (euskarazko lehehengo meza Bizkaian bertan eman zuen); Mikel Zarate...

38. Abadeari berorika egiten zitzaion

- **Erref**: MAL-025/017
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:22:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Abadeari berorika egiten zioten. "Ez don eta bai don...".

39. Elizako kontuak

- **Erref**: MAL-025/019
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:23:05. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Lehenago "maiordomuak" batzen zuen dirua elizan.

40. Medikuari berorika egiten zitzaion

- **Erref**: MAL-025/020
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:
Medikuari ere berorika egiten zitzaion. Lehenago zaldian joaten zen medikua baserrietara.

41. Mallabiko medikua; Ermuko partera

- **Erref**: MAL-025/022
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:26:00. **Bukatu**: 00:26:35

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Baserrietara ere medikua joaten zen umea erditzen laguntzera. Ermuko partera.

42. Sasimedikoak eta sendabelarrak

- **Erref**: MAL-025/023
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:28:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Natura » Fauna
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Sasimedikorik ez dute ezagutu. "Sasibeterinarixu". Berbena belarra. Usenak.

43. Bidegintza

- **Erref**: MAL-025/024
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:28:55. **Bukatu**: 00:30:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Bidegintza. Baserrira doan bidea noiz egindakoa den. Foru Aldundiaren esku egon da hainbat urtetan.

44. Bidegintza: kaltzada; burdibideak...

- **Erref**: MAL-025/025
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:30:25. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Bide zaharra. "Bidegiñan egin behar urtean behin; elizbideak konpontzen. Kaltzada; burdibideak.

45. Kaltzadaren inguruko azalpenak

- **Erref**: MAL-025/026

- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Burdibidea; kaltzada. Putzuak. Kaltzada nolakoa zen; nondik-norako bidea.

46. Aurrerapenak baserrian: ur-korrontea

- **Erref**: MAL-025/027
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ur-korrontea etxean noiz jarri zen. Gauzak nola aldatzen diren...

47. Garbitasuna eta aurrerapenak baserrietan

- **Erref**: MAL-025/028
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Garbitasuna ur-korronterik gabeko etxeetan. Gauzak nola aldatzen diren... Komunak baserri askotan, etxe osteko karkaban egoten ziren.

48. Mallabia inguruan zeuden errotak

- **Erref**: MAL-025/029
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:35:15. **Bukatu**: 00:37:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Garia errotara eraman beharrean, Trabakuan aldatzen zuten. Gerraosteko kontuak. Toponimia. Errotak inguruan; izenak. Muniozguren baserrian errota. Bizimodua asko aldatu da.

49. Labasua astean behin

- **Erref**: MAL-025/030
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:35. **Bukatu**: 00:39:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Garia gurdiarekin eramaten zuten Trabakuara. Labesua astean behin egiten zen.

50. Labesua non eta zelan egiten zen

- **Erref**: MAL-025/031
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:39:25. **Bukatu**: 00:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Labesua non egiten zuten eta nork. "Artesie" edo "oremahaixe". Zer behar izaten zen ogia egiteko. Artoa. Sagar erreak. Hazgarria.

51. Labea nola garbitzen zuten

- **Erref**: MAL-025/032
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:42:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Labea garbitzeko zer erabiltzen zuten. "Ipittie".

52. Sagar klase desberdinak

- **Erref**: MAL-025/033
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:42:55. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Sagarrak erretzen zituzten labean. Sagar klaseak. Sagastiak baserrietan.

53. Gaztainak nola batzen zituzten

- **Erref**: MAL-025/034
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:45:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Basoak asko aldatu dira. Lehenago ez zegoen pinurik. Gaztainadi handiak. Gaztaina denboran, gaztainak batzen zituzten "lakatz" eta guzti.

54. Lehenengo pinudiak Mallabian

- **Erref**: MAL-025/035
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Lehenengo pinudiak noiz landatutakoak. Pinuak zein sasoitan landatzen diren.

55. Gaztaina-batzea

- **Erref**: MAL-025/036
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:46:35. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Gaztaina-batzea. "Kaku haundixakin" botatzen zituzten gaztainak. Lexikoa.

56. Gaztaina-erre jana

- **Erref**: MAL-025/037
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:49:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Gaztainak "lakatz" eta guzti gordetzen zituzten etxe kanpoan. Gaztaina-erre jana.

57. Basoko animaliak

- **Erref**: MAL-025/038
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:49:10. **Bukatu**: 00:51:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Fauna
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Basoan ikusten diren animaliak. Azkonarra; basurdeak; zaldiak; azeriak... Azkonarra artoa jatera joaten zen baserrietara. Basakatuak; "katamixorra".

58. Basoko animaliak

- **Erref**: MAL-025/039
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:51:10. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Fauna

Laburpena:
"Ogi-gaztaie" edo "satanderie". Nolakoa da.

59. Garotara Oiz mendira

- **Erref**: MAL-025/045
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:58:55. **Bukatu**: 01:00:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Garo-batzen Oizera. Lan astuna izaten zen; zer erabiltzen zuten garoa mozteko. "Burkarie".

60. Garoaren garrantzia baserritarrentzat

- **Erref**: MAL-025/047
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:00:55. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Etxe bakoitzak bere garo-sailak izaten zituen. Garoaren garrantzia

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com